

Harreman sareetako hizkuntza-arauetan
eragiten

Ikasleek euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egitera begirako jarduera adibideak

1– Irakasleak taldeari proposatutako jarduerak:

- Euskararen ontziko mezu sekretua

2– Ahobizi jarduerak (borondatezkoak):

- Hitzontzien eskuak
- Galtzagorriak
- Ohitura aldaketen erronka

3–Eusleak (talde mailako erabakiak):

- 15 baietz

1 – Irakasleak taldeari proposatutako jarduerak:

Ohiko jarduerak dira ikastetxeetan.

Modu honetako jarduerak irakasleak proposatzen dizkie ikasleei, eta guztien parte hartzea bilatzen da. Ez dago talde mailako erabakirik edota ikasleei ez zaie argi azaltzen parte hartzea borondatezkoa denik.

Euskararen ontziko mezu sekretua

Kokatzea

Ikasleek euskara erabiltzeko ahalegin berezi bat egitea nahi dugu gutxienez denbora tarte batean: erronka irauten duen denboran.

Horrelako dinamikak ez dira nahikoa hizkuntza-ohiturak aldatzeko, baina ikasleentzat motibagarriak dira, ahalegin berezi bat egiten dute eta irakasleek bi helburu lortzeko erabil ditzakete:

1.- Ahalegin horri errefortzu positiboak ematea eta ikasleek euskara erabiltzeko ahalegina sentsazio positiboekin lotzea.

2.- Erabilerari dagokionez gutxieneko helburuetara hurbiltzen laguntzea: irakasleak helburu lorgarri moduan ikusten duen horretara hurbiltzen laguntzea eta irakasleak erabiltzen dituen oinarrizko estrategien tresna lagungarri moduan erabiltzea.

Prozedura:

- Euskararen ontziko mezu sekretua.
- Behar ditugu:
 - o Bi botila: bat litro batekoa eta bestea bost litrokoa (edo beste kopuru batzuk izan daitezke).
 - o Plastikozko pilota txiki bat: barruan paper bat sartu eta botila handian sartu daitekeena (tabernetako makinetako oparidun pilota horiek balio dezakete).
- Botila handian, hutsa dagoela, pilota sartuko dugu eta pilotaren barruan mezu sekretua egongo da idatzita.
- Botila urez betetzea lortzen dutenean, pilota gora igoko denez, pilota atera ahal izango dute eta mezua irakurri.
- Botila handia urez betetzeko, egunero botila txikian lortu behar dute ura.
- Botila txikia urez betetzeko euskara “asko” erabili behar dutela esango diegu: helburua dela beraiek euskara asko erabiltzen saiatzea (gelan, patioan...), horretan gustura aritzea eta guk lagunduko diegula. Egunero galdetuko diegu euskara “asko” erabili ote duten: gaur asko erabili duzue? Atzo baino gehiago? Nork lortu du normalean egiten ez duen batekin edo egiten ez duen egoera batean euskara erabiltzea? Zer ikusi dugu guk?... Ebaluazioaren arabera, botila txikia osoa beteko dute, erdia... Lortzen duten ur hori botila handira botako dute.
- Kanpaina amaituko da botila handia bete eta mezua irakurtzen dutenean (baina ez dadila gehiegi luzatu, astebete eta aste eta erdi artean gehienez ere).
- Zein izan daiteke mezua?
 - o Beti agertu behar du: Euskararen erabilera baloratzen duen mezua (egin duten ahalegina), gure poza adierazten duena...
 - o Sariren bat ere jar daiteke
 - o Sariaren ordezkari nahikoa izan daiteke beste taldeek ez duten informazio bat ematea: inauterietako mozorroa zein izango den, udaberriko txangoa nora egingo den, hurrengo azterketan agertuko den galdera bat, ikastetxera etorriko den pertsonai ezagunen bat...
- Kanpainak irauten duen denboran (aste bat, 3-4 egun...) erabileran eragiteko zehaztu dudana prozedura askotan erabiliko dute (intentsitate handia emango diot epe horretan): taldeka banatzea, zentro-partea

ebete

bihurtzea, helburua gogoraraztea... Horrek lagunduko digu talderako helburura hurbiltzen.

- Ematen dugun mezua behar bezain erakargarria bada, kanpaina tarteka errepikatu dezakegu.
- *Beste aukera bat: ikasleak zerbait askotan galdetzen ari badira, zerbait jakin nahi badute, informazio hori ontzian dagoela esan eta kanpaina bat jarri dezakegu abian edozein momentutan. Hau da, edozein momentutan egin dezakegu kanpaina (noski, gehiegitan egiten badugu, indarra galduko du).*

Gela barrurako edo gelaz kanporako:

- Bietarako balio du kanpainak
- Gelaz kanpo bada, beraiekin auto-ebaluazioa egiteaz gain, esango diegu irakasleok ere adi ibiliko garela eta lagunduko diegula patioan eta pasilloetan euskara erabiltzen: taldeetara hurbilduz, elkarrizketak sortuz...

2– Borondatezko jarduerak:

Modu honetako jardueretan ikasleek beraien borondatez parte hartzen dute. Irakasleek proposatzen dute, hainbatetan hausnarketa saio baten ondoren, eta ikasleak dira horretan parte hartu edo ez erabakitzen dutenak

Bi modutako jarduerak aurkezten ditugu ondorengo orrietan:

- Parte hartu nahi duten ikasle guztiek rol bera dute eta erantzunkizuna indibiduala da: Hitzontzien eskuak eta Ohitura aldaketen jolasa
- Ikasle gutxi batzuk hartzen dute protagonismoa baina erantzunkizuna ez da beraiena soilik. Ahobizi jarduerak: Galtzagorriak.

Hitzontzien eskuak

Ondorengo hau Mungiako Legarda ikastetxean sortutako jarduera bat da.

Ikasleei euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egitea proposatzen zaie (horretaz hitz egiteko saioen bat prestatu daiteke), eta ondoren dinamika aurkezten zaie:

- Goizero, euskara gehiago hitz egiteko prest dauden ikasleek, bere izena jarrita duen esku formako irudi bat itsatsiko dute leihoan. Euskaraz egiteko konpromisoa hartzen dute.
- Euskaraz egiten badute, eskua bertan uzten dute. Erdaraz egiten badute, eskua kendu behar dute.
- Irakasleak ere jartzen du esku bat.

Jarduera horri begira, honako puntu hauek kontuan hartu behar dira.

Eskua mantentzea nahi dugu

Beraiek eskuak mantentzea nahi dugu. Arrakasta izatea. Beti eskua kentzen badute etsigarria izango da. Lagundu egin behar diegu.

Hezitzaile Berritsuak izan eta egoera zehatzei begiratu

Hezitzaile Berritsuak izan behar dugu. Banakoekin elkarriketa asko sortu, beraien arteko elkarriketa askotan sartu... Gure presentziak eta eraginak nabarmena izan behar du. Horretan ari garenean honakoari begiratu:

Abiapuntua	Garapena
Batzuetan niri erdaraz egiten didatenei ahalegina eskatu diedanean, ahalegina egin dute?	Gero eta gutxiagotan eskatu behar diet ahalegina? Zailtasunekin bada ere ahalegintzen da gurekin eta beti euskaraz egiten?
Ikasgelan taldeka lanean ari direnean erdaraz egiteko ohitura dutenei ahalegina eskatu diedanean, ahalegina egin dute? Pixka batean behintzat mantendu dute?	Taldeka lanean ari direnean gutxitan eskatu behar diet ahalegina? Nire presentzia hutsa nahikoa da euskara mantentzeko?
Ikasgelara sartzen naizenean eta elkarriketaren batekin hasten naizenean ahalegina eskatu behar diet euskaraz egiteko? Lortzen dut euskaraz egitea?	Ikasgelara sartzen naizenean eta nire presentzia agerikoa denean euskaraz egiten hasten dira nik ahalegina eskatu gabe?
Ikasgelara sartzen naizenean nire presentzia nabarmena izan behar du euskaraz egin dezaten? Batzuetan ahalegina eskatu behar diet?	Ikasgelara sartzen naizenean euskaraz ari dira?
Patioan-pasiloetan elkarriketetan sartu behar dut euskaraz egin dezaten? Ahalegina eskatu behar diet euskaraz egiteko?	Patioan-pasiloetan nire presentzia nahikoa da elkarriketak euskarara aldatzeko?
Patioan pasiloetan nire presentziarekin euskaraz egiten dute baina berehala erdarara jotzen dute ondoren? Mantentzeko ahalegina eskatu behar diet?	Patioan-pasiloetan nire presentzia nabarmenegia ez denean ere ohikoa da euskara mantentzea?

Kontziente naiz egoera horietako bakoitzean zein den errealitatea? Nire taldekoekin, nire ziklokoak ez direnekin...

Ahalegina eskatu

Eskuaren dinamikak ahalegina eskatzea errazten digu. Hau izan daiteke mezu egoki bat:

- Euskara asko erabiltzea nahi dugu. Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo euskara asko erabiltzeko ahalegina egitea.
- Gu laguntzeko prest gaude eta adi ibiliko gara. Baina beraiek ahalegina egitea nahi dugu.

Egunero ikasleekin eskuari buruz eta euskararen erabilerari buruz hitz egingo dugu:

- Taldekako balorazioa izan daiteke edo bakoitzak egiten duena.
- Mezu orokorrak eta mezu pertsonalak eman ditzakegu:
 - o Irudi zait gaur ahalegindu zaretela. Ikasgelan euskara asko entzun dut eta patioan ere bai... (Beti ez dute mezu positiboak izan beharrik, negatiboak ere izan daitezke).
 - o Egoera zehatzei adi ibili garenez, gure ikasleen ezaugarrietara egokitutako ahalegin zehatzak eskatu ditzakegu. Adibidez: *gustatuko litzaidake ikasgelan ni sartzen naizenean euskaraz ari zaretela konturatzea, nik egiteko eskatu gabe. Edo: Izaro, konturatu naiz azken egunetan euskara asko erabili duzula. Patioan ez dakit, baina taldeka lanean ari zaretenean...*

Errefortzu positiboak eman

Jarduera honen bidez euskararen erabilera indartu nahi dugu, baina oso garrantzitsua da errefortzu positiboak ematea lortzea eta askotan ematea: euskara erabiltzeko ahalegina sentsazio positiboekin lotu behar dute. Jarrerak lantzeko modu bikaina da. Horregatik baloratu behar dira lorpen txikiak eta horiek lortu ditzaten lagundu behar diegu.

Ohitura aldaketen erronka

Bigarren Hezkuntzarako dinamika egokia da, baina Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako ere balio dezake.

Erronka proposatu aurretik hausnarketa bat egitea aproposa izan daiteke, baita amaitutakoan talde mailan ondorio batzuk ateratzea ere.

-Hizkuntzak ondo ikasteko asko erabili behar dira. Euskara gehiago erabiltzeko ekimen bat proposatu nahi dizuegu, baina horren aurretik hausnarketa txiki bat egin nahi genuke.

-Zein izan daiteke euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoietako bat? Adibidez: erraztasuna, gogoia, ingurukoek ez jakitea, edo ohiturak (zerrenda beraiekin batera osatzen saiatu gaitzke)

-Ohituren gaien kokatu nahi dugula esango diegu.

-Hainbat ohitura finkatuta ditugu. Batzuk hizkuntzarekin baina bestelakoak ere asko. Adibidez: zer egiten dugu egunero berdintsu ikastetxean? Zer bururatzen zaie?

- Ideiak botatzeko esango diegu eta guk ere ekarpenak egin ditzakegu: beti ordu berean eta leku berean geratzen gara pertsona berdintsuekin, hamaiketakorako..., atsedean tartean..., ikasgelara sartzean...

- Zein bestelako ohitura ditugu etxean edo kalean?

- Ondorioa: gure bizitza ohitura eta errutinez betea dago.

- Baina ohiturak aldatu al daitezke?

- Taldetxoetan aldatu izan dituzten ohiturei buruz hitz egiteko eskatuko diegu: beraiek aldatu dituztenak edo ezagutzen dituztenak. Zerrenda bat egin behar dute bi-hiru minututan. Ondoren, talde bakoitzak bereak irakurriko ditu.

-Ohiturak aldatzea erraza edo zaila al da? Iritzi truke bat egingo dugu.

-Ohituren aldaketen inguruan proposamen bat egingo diegula esango diegu.

-Ohiturei buruz aritu gara, baina zer esan dezakegu hizkuntza-ohiturei buruz? Hizkuntza-ohiturak aldatzea zaila edo erraza al da? Horren inguruan hitz egingo dugu. Behar bada Euskaraldiko erreferentziak ere egin daitezke: zenbat jendek eman zuen izena, hizkuntza-ohitura aldaketa zela helburua eta abar.

- Proposamen zehatz bat ere aurkeztuko diegu.
 - Ohiturekin eta hizkuntza-ohiturekin erronka txiki bat aurkeztu nahi diegu.
 - Borondatezkoa izango da, nahi duenak parte har dezake.
 - Hizkuntza-ohiturei buruzko orri bat emango diegu: "Ohitura aldaketen erronka: norekin egiten dut euskaraz?" izeneko fitxa banatuko diegu
 - Betetzen dutenean bigarren fitxa bat emango diegu: "Ohitura aldaketen erronka: erronka baterako prest?" izeneko.
 - Bertan ohitura aldaketa txiki bat eta hizkuntza-ohitura aldaketa txiki bat proposatuko dizkiegu.
 - Gehienez ere bi astetarako izango da.
 - Epe horretan ohitura horiek izatera gonbidatuko ditugu
-
- Aukera egokia izan daiteke txapak ateratzea: parte hartzen dutenei Ikastetxeko Ahobiziak txapa ematea.

OHITURA ALDAKETEN ERRONKA

NOREKIN EGITEN DU EUSKARAZ?

A- Guztia euskara B- Gehiena euskaraz C- Gehiena gaztelaniaz D- Guztia gaztelaniaz

	Nor da?	Zenbat euskara erabiltzen duzu?		
		Ikasgelan	Ikastetxean	Ikastetxetik kanpo
Harreman handia duzun lagun bat				
Harreman handia duzuen beste lagun bat				
Harreman handia duzun hirugarren lagun bat				
Ikasgelan zure ezkerretan esertzen dena				
Ikasgelan zure eskuinetan esertzen dena				
Jangelan zure aurrean jartzen dena				
Jangelan zure ezkerretan esertzen dena				
Nahi baduzu, besteren bat ere jar dezakezu:				

OHITURA ALDAKETEN ERRONKA

Erronka baterako prest?

<ul style="list-style-type: none"> - Norekin egiten dut euskaraz? fitxatik guztia euskaraz egiten ez duzun bi pertsona aukeratu. - Egoera bat aukeratu: Gelan, ikastetxean edo ikastetxetik kanpo. - Hurrengo urratsera iristen saiatu behar duzu astebete horretan zehar: <ul style="list-style-type: none"> o D den kasuetan, C izatea. o C den kasuetan, B izatea. o B den kasuetan, A izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Horretaz gain, horiekin beste ohira bat ere aldatu behar duzu aste honetan zehar: <ul style="list-style-type: none"> o 1 aukera: egunero, lehenengo aldiz ikustean besarkada bat ematea o 2 aukera: egunero, gutxienez bi aldiz urrutitik ikustean oihu eginaz agurtu: <i>..., egun on!,, arratsalde on!,, ondo pasa!...</i> o 3 aukera: egunean zehar, gutxienez hiru aldiz, honakoa esan behar diozu: <i>Marigorringo, zurigorringo, bihar eguzki ala euri egingo?</i> o 4 aukera: goizean, eguerdian, arratsaldean eta gauen watsap bat bidaltzea modu honetako esaldiren batekin: <i>Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi... gora gu!</i>
--	--

Zein pertsona, egoera eta helburu aukeratu dituzu?

Frogatzeko prest?

	Izena	Egoera	Hizkuntza-ohitura helburua	Beste ohitura
1				
2				

Ahobizi jarduerak: Galtzagorriak

Ahobizi jarduerak borondatezkoa dira. Ikasle batzuk, egun edo tarte bakoitzean, Ahozbi rola betetzeko ardura hartzen dute. Beste ikasleei hauen ahalegina errazteko proposatzen zaie, baina beraiek ez dute ardurarik hartzen egun edo tarte horretan.

Ahobizi rola betetzea errazteko eta ahalegin hori dibertigarria ere izateko, pertsonai edo istorio batekin lotu daiteke zeregin hori. Adibidez: Ahobiziak Galtzagorriak dira. Nola jokutzen dute Galtzagorriek? Ateak atzeraka zeharkatzen ditu, pauso txikiekin ibiltzen da eta euskaraz egiten du.

Ondoren aurkeztzen den dinamika Udaleku batzuetan erabiltzeko sortu zen. Beraz, ikastetxe batedan egin nahi bada ezaugarriak egokitu behar dira. Baina ideia baliagarria izan daiteke.

Ahobizi jarduera I: "Galtzagorriak"

Erronka:

- Mariren orrazia hiru zenbaki dituen kandado batekin itxitako kaxa batean dago.
- Hiru zenbaki horiek lortu behar dituzte
- Eguneko hiru tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean zenbaki bat lortzea izango dute helburu. Hiru tarteak hauek:
 - Gosaldu ondorenetik hasi eta lehenengo ekintzak irauten duen bitartean.
 - Bazkalosteko tartean.
 - Arratsaldeko tarte batean.

Azalpena:

- Bost ahobiziek tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute
- Hezitzaileetako batek ere ahobizien moduan jokatu beharko du
- Tarte bakoitzaren amaiera aldera, bostak bilduko dira hezitzaile horrekin, eta galdera batzuk egingo dizkie
- Galderen ondoren hezitzaileak asmakizun bat edo froga bat aurkeztuko die
- Hori gainditzen dutenean zenbakia lortuko dute
- Gaubelan kutxa ireki eta Mariri eman beharreko orrazia lortuko dute.

Hasiera:

- Leku nabarmen batean kutxa bat jarriko dugu kandado batez lotuta. Hiru zenbakidun kandado bat.
- Jaikitzen diren momentutik, ikusi egin behar dute. Oso bistan egon behar du.
- Kutxaren inguruan (baita aterpetxean zehar ere), kartelak edo girotzeko gauzak jar daitezke: pertsonai mitologikoak adibidez.

Istoria:

Hezitzaileek azalduko dute:

Azkenik jakin da Mariren urrezko orrazia non dagoen. Berrizen agertu da, baina kaxa baten barruan dago eta herritarrek ezin dute zabaldu. Herriko biztanleek ez dakite kaxarekin zer egin eta guri ekarri digute. Irekitzen badugu, Mariren orrazia lortu eta berari emateko aukera izango dugu. Lortuz gero, Marik bizitza guztirako zoriontasuna oparituko digu.

- Kutxa irekitzeko hiru zenbakiak lortu behar dituzue.
- Zenbaki horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko ahobiziak, "galtzagorriak".
- Frogak ondo egitea komeni zaizue, Marik oso umore ona du baina haserretzen denean...
- Gure "galtzagorriek", hau egiten dute:
 - Ateak atzera begira zeharkatu eta hitz egiten: Ba al dakizue Mariren kobazulotik kobazulora begira atera behar dela beti? Mariri errespetua agertzeko modua da eta zuek ere ohitura hau mantendu behar duzue. Nola? Ahobizi izango zareten tarte guztietan ateak horrela zeharkatuz, uzten duzuen gela edo guneari bizkarra eman gabe. Eta gainera zeharkatzen duzuen momentuan hitz egiten pasatu behar duzue. Hau da, edozein ate zeharkatzean, atzera begira eta zerbait esaten pasatu behar duzue, euskaraz, Mariri horixe gustatzen zaio eta.
 - Ateak zeharkatzen ez zaudeten momentuetan ere euskaraz egin behar duzue, Marik alde guztietan dauzka belarri eta begiak eta jakin badaki orraziaren kaxa zuen eskutan dagoela. Marik hizkuntza asko jakin arren euskara du gustuko eta bere botere beldurgarrienak erabiltzeko gai da bere orrazia esku okerretan dabilela ikusten badu.
- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
 - Gosaldu ondorenetik hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte
 - Bazkalostean
 - Arratsaldeko tartean
- Tarte horien amaieran, (hezitzaileetako batek), elkartu egingo zaituztete bost ahobiziak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita froga bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue zenbakia.
- Dena ondo badoa, iluntzerako Mariri orrazia emateko aukera izango duzue.

Girotze lana:

- Ahobizi bezala bereizteko galtzagorrien ezaugarriren batekin jantziko

dira (galtza, peto gorriak adibidez) eta haien bezala jokatuko dute. Nolakoak dira galtzagorriak?

- Galtzagorriak batez ere langileak eta bihurri xamarrek dira, zirikatzen aritzen dira batetik betera.
- Hezitzaileok jarrera aktiboa izan behar dute eta galtzagorriak xaxatzen ibili: ezaugarriak ondo betetzen al dituzte?

Ahobizien aukeraketa, nortzuk izango dira gaurko galtzagorriak?

- Gosariko orduan dinamika azalduko da eta istorioa kontatuko da.
- Ahobizi izateko prest nortzuk dauden galdetuko da.
- Bost aukeratu dira (Bolondresak bost baino gehiago badira ahobizi dinamika gehiago izango direla azaldu eta aukera izango dela esan).

Zer eskatuko zaie besteei?

- Galtzagorriak animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzen badute, askoz hobe.

**Oharra: guztien izan behar dute ahobizi izateko aukera, eta beraz, egunez egun ahobiziak aldatu. Batzuk ez badira inoiz animatzen, egunean zehar beraiekin hitz egin eta hurrengo egunean animatu daitezzen gonbidatu.*

Egunean zehar balorazioak eta frogak:

- Tarte bakoitzaren amaieran, hezitzaile bat bost ahobiziekin bilduko da eta galdera batzuk egingo dizkie:
 - Zer moduz aritu dira? Ateak atzera begira zeharkatu dituzte? Zeharkatzean hitz egiten al zuten? Denbora guztian euskaraz egin dute?
 - Garrantzia berezia emango zaio azken puntu honi: argi azalduko zaie guretzat klabea nagusia hori dela.
- Ondoren, zenbakia lortzeko froga bat gainditu beharko dute: asmakizun bat erantzutea, matematiketako ariketa bat egitea, kirol froga bat edo dena delako. Zerbait nahiko azkar egin daitekeena.
- Zenbakia emango diegu, eta horretaz gain:
 - Hurrengo tarte noiz izango den gogorarazi
 - Rola mantentzera gonbidatu beste tarteetan ere
- Hirugarren tartearen ondoren, euskara mantentzeari buruz galdetuko zaie batez ere:
 - Erraz mantendu al dute? Tarteren batean zaila egin zaie? Zailtasunak izan badituzte, hurrengo egunetakoei zer proposatu horiek gainditu ditzaten?
- Gaubelan hiru zenbakiak izango dituztenez, kaxa irekiko dute. Eta Mariri orrazia eskaintzeko ohorea izango dute.

*Begirale bat Mariren mozorroa jantzita egongo da kanpoaldean eta denak bertara gerturatuko dira. Orrazia jasotzean, Marik hitz egingo du.

Materiala:

- Altxorra
- Galtzagorrien txapel edo fraka gorriak
- Urrezko orrazia
- kandaua (3 zenbakiduna)
- Mariren mozorroa (soineko zuria eta peluka luzea)

Lotura honetan egindakoaren laburpen bat ikus daiteke:

<https://www.youtube.com/watch?v=kNfxXHngz-Y&t=75s>

Eranskina I - Galtzagorriak

Goizeko azalpena

Hemen daukazue Mariren orrazia!

Berrizko etxeetan zur eta lur daude. Orrazia Atxondo inguruan zegoela uste zuten denek baina herrian etxe bateko obra egiten ari zirela kutxa bat agertu da eta Mariren orrazia bertan dagoela jakin dute. Baina kutxa norbaitek kandadu batez itxi zuen eta ezin dute ireki. Galtzagorriak dira hori irekitzeko gai baina kutxa irekitzeko hiru zenbakiak lortu behar dituzue. Kutxa zabaldu eta berehala Mariren esku utzi behar duzue orrazia bestela urrezko orrazia desagertu eta orrazi arrunt bilakatuko da, bere botere eta balioa galduz. Zenbaki horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko “galtzagorriak” eta hezitzaile bat ere “galtzagorria” izango da.

- Baina garai horretako galtzagorrien moduan jokatu behar duzue, bestela ez duzue lortuko.
- Gure piratek, hau egiten dute:
 - Ateak atzera begira zeharkatu eta hitz egiten: Ba al dakizue Mariren kobazulotik kobazulora begira atera behar dela beti? Mariri errespetua agertzeko modua da eta zuek ere ohitura hau mantendu behar duzue. Nola? Ahobizi izango zareten tarte guztietan ateak horrela zeharkatuz, uzten duzuen gela edo guneari bizkarra eman gabe. Eta gainera zeharkatzen duzuen momentuan hitz egiten pasatu behar duzue. Hau da, edozein ate zeharkatzean, atzera begira eta zerbait esaten pasatu behar duzue, euskaraz, Mariri horixe gustatzen zaio eta.
 - Ateak zeharkatzen ez zaudeten momentuetan ere euskaraz egin behar duzue, Marik alde guztietan dauzka belarri eta begiak eta jakin badaki orraziaren kaxa zuen eskutan dagoela. Marik hizkuntza asko jakin arren euskara du gustuko eta bere botere beldurgarrienak erabiltzeko gai da bere orrazia esku okerretan dabilela ikusten badu.
 - Gogoratu galtzagorriak zaretela! Galtzagorriak langileak eta bihurriak dira. gizakiak laguntzen aritzen zarete. Haien inguruan bueltaka eta bueltaka hasten zarete egitekorik ez duzuenean. *Eta orain zer? Eta orain zer?* Da zuen galderarik gustukoena. Ez ahaztu ba bihurrikeria horiekin!
- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:

- Gosaldu ondorenetik hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte
- Bazkalostean
- Arratsaldeko tartean
- Tarte horien amaieran, galtzagorri nagusiak (hezitzaileetako batek), elkartu egingo zaituztete bost galtzagorriak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita froga bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue zenbakia.
- Dena ondo badoa, iluntzerako kaxa zabaltzeko zenbakiak eta orrazia lortuko duzue.

NORTZUK IZANGO DIRA GALTZAGORRIAK?

- Bakoitzari txapel edo peto gorri bat emango zaie.
- Galtzagorri bakoitzari izen bat asmatzeko eskatu.

MATERIALA: - Kutxa – 3 zenbakidun kandadoa – 6 txapel edo peto gorri – urrezko orrazia Marirentzat soineko eta peluka luzea

Hezitzaileentzat

Igo froga:

Galtzagorriak urduri daude, gelatik sartu eta irten dabilta, **elkar zirikatzen, jende artean bueltaka eta oihuka**. Gelara aurrera begira sartu behar zarete baina irten ere hala egin behar duzue elkarriketa hau antzeztu behar duzue bitartean. (esaldiak prest daude bakoitzari bat eman).

- 1 – Atzera eta aurrera jarraitzen badugu ez dugu inoiz Mariren orrazia lortuko
- 2 – Hau zorabioa! Sartzeko eta irtetzeko norabide berera begira!
- 3 – Baina nork asmatuko du lelokeri hau?
- 4 – Ixildu! Marik entzuten bazaitu ez dugu gure nahia lortuko eta!
- 5 – Nik behintzat Mariren esana bete eta horrela jarraituko dut. Atzera eta aurrera baina gelari bizkar eman gabe! Begira! Atzera eta aurrera! Atzera eta aurrea!
- 6 – Denon artean lortuko ditugu zenbakiak! Bai horixe!!!
Denak jende artean bueltaka hasiko dira, oihuka eta orain zer? Eta orain zer?

Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko):

	BAI	EZ	Bai/ Ez	Besterik:
LEHENGO TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Ateetatik pasatzean ondo egin duzue?				
Jendearen inguruan bueltaka eta zirikatzen aritu zarete?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

Kandaduaren lehen zenbakia:

2. froga:

Hezitzaile edo eta koordinatzaileen, adin edo bestelako datuak kontuan izanda hurrengo zenbakiaren emaitza lortu behar duzue. Hau da FROGA MATEMATIKOA (hezitzaileek prestatzeko)



Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/ Ez	Besterik:
LEHENGO TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Ateetatik pasatzean ondo egin duzue?				
Jendearen inguruan bueltaka eta zirikatzen aritu zarete?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

Kandaduaren bigarren zenbakia:

Hezitzaileentzat

3. froga

Mariren historia gehiago ezagutzeko esaldi hauek osatu behar dituzue.

- Mari da gure irudirik behinena. Lurraren antzirudia da, eta ahaide edo jenio guztien ama. Ume bi izan zituen senar Majurekin: _____ eta Mikelats. Majurekin elkartzen denean sekulako _____ sortzen ditu.
- Mariren etxea _____ da. Etxe asko ditu Marik, eta denak gure mendietan: Anboton, Oizen, Mugarran, Aketegin, Aizkorri, Txindokin, Murumendin, Gorbeian eta abar. Mari lur barrutik kobazuloetan zehar mugitzen denean, _____ edo oilo hankak izaten ditu; eta leizeetatik ateratzen denean, emakume eder moduan azaltzen zaigu.
- Mari Dama elegantea eta ederra da Mari, lurpekoen andere, trumoi eta tximisten gidari, aberatsa eta ibiltaria: zazpi urtetik zazpi urtera mugitzen da leize batetik bestera argi biziz inguraturik, suzko bola baten moduan; lau zaldik eramandako gurdi baten gainean, edo _____ betearen aurrean ere ikusi izan dute. Urrezko orrazi batez orraztu eta orraztu dihardu egun guztian.

ATARRABI, EKAITZAK, LEIZEA, AHUNTZ, ILARGI

3. balorazioa. Sakontzen	BAI	EZ	Bai/ Ez	
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

Kandaduaren hirugarren zenbakia:

galtzagorrei banatzeko esaldiak.

Igo troga egiteko eikarrizketa papertxoetan izango dugu, ahobizi bakoitzak esaldi bat izango du, hezitzaile ahobiziak ere, bukaerako esaldia denok batera.

ebete

- 1 – Atzera eta aurrera jarraitzen badugu ez dugu inoiz Mariren orrazia lortuko
- 2 – Hau zorabioa! Sartzeko eta irtetzeko norabide berera begira!
- 3 – Baina nork asmatuko du lelokeri hau?
- 4 – Ixildu! Marik entzuten bazaitu ez dugu gure nahia lortuko eta!
- 5 – Nik behintzat Mariren esana bete eta horrela jarraituko dut. Atzera eta aurrera baina gelari bizkar eman gabe! Begira! Atzera eta aurrera! Atzera eta aurrea!
- 6 – Denon artean lortuko ditugu zenbakiak! Bai horixe!!!
Denak jende artean bueltaka hasiko dira, oihuka eta orain zer? Eta orain zer?

1 - *Atzera eta aurrera jarraitzen badugu ez dugu inoiz Mariren orrazia lortuko*
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*

2 - *Hau zorabioa! Sartzeko eta irtetzeko norabide berera begira!*

BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*

3 - *Baina nork asmatuko du lelokeri hau?*

BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*

4 - *Ixildu! Marik entzuten bazaitu ez dugu gure nahia lortuko eta!*

BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*

ebete

5 - Nik behintzat Mariren esana bete eta horrela jarraituko dut. Atzera eta aurrera baina gelari bizkar eman gabe! Begira! Atzera eta aurrera! Atzera eta aurrea!
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*

6 - Denon artean lortuko ditugu zenbakiak! Bai horixe!!!

BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*

3. froga:

Esaldia osatu hutsuneak betez. Hizki zopan daude hitzak.

- *Mari da gure irudirik behinena. Lurraren antzirudia da, eta ahaide edo jenio guztien ama. Ume bi izan zituen senar Majurekin: _____ eta Mikelats. Majurekin elkartzen denean sekulako _____ sortzen ditu.*
- *Mariren etxea _____ da. Etxe asko ditu Marik, eta denak gure mendietan: Anboton, Oizen, Mugarran, Aketegin, Aizkorrin, Txindokin, Murumendin, Gorbeian eta abar. Mari lur barrutik kobazuloetan zehar mugitzen denean, _____ edo oilo hankak izaten ditu; eta leizeetatik ateratzen denean, emakume eder moduan azaltzen zaigu.*
- *Mari Dama elegantea eta ederra da Mari, lurpekoen andere, trumoi eta tximisten gidari, aberatsa eta ibiltaria: zazpi urtetik zazpi urtera mugitzen da leize batetik bestera argi biziz inguraturik, suzko bola baten moduan; lau zaldik eramandako gurdi baten gainean, edo _____ betearen aurrean ere ikusi izan dute. Urrezko orrazi batez orraztu eta orraztu dihardu egun guztian.*

MARI EZAGUTZEN

I	V	V	C	Q	H	W	W	J	N	E	F	O	W	U
Ñ	G	L	R	H	V	K	N	J	D	N	I	G	J	M
D	O	R	A	T	H	Z	A	L	J	H	Z	A	R	C
U	O	I	A	X	K	D	A	M	X	V	C	O	H	K
S	A	H	X	L	S	R	C	Y	V	H	B	H	K	A
Ñ	R	B	K	V	I	Y	M	E	W	L	H	L	V	X
H	Y	H	V	I	S	V	M	J	H	A	P	B	X	B
O	R	L	V	Q	T	Z	T	N	U	H	A	X	Z	D
F	M	F	H	I	B	A	R	R	A	T	A	Z	A	P
E	K	A	I	T	Z	A	K	Z	E	T	R	Y	E	J
A	J	Q	Q	Z	R	Y	X	Q	I	O	T	C	Z	B
L	A	F	W	Y	K	N	F	D	B	S	U	P	I	Ñ
Y	Z	C	N	N	C	P	J	V	E	R	Y	N	E	R
M	K	Q	J	L	X	Ñ	G	G	J	U	R	G	L	D
C	G	A	Ñ	R	P	A	E	Y	M	Z	Z	H	P	V

3– Eusle jarduerak (talde mailako erabakia):

Talde mailako erabakiak Eusle metodoaren inguruko dinamikak dira. Dinamika horietan taldeak erabakitzen du euskararen erabileran aurrera pausoak ematea eta hortik eratzten da jarduera. Taldeko gehiengo handi bat ez badago ados, ezin da dinamika aurrera eraman. Parte hartzaile batzuk ardura edo protagonismo handiagoa har dezakete (Ahobizi jarrera) baina erantzunkizuna guztiena da.

15 baietz

15 baietz ekimena Gasteizko Armentia ikastolan sortu zuten eta Rafa Arrizubieta irakaslearen proposamena da. DBHrako jarduera da. Egokia izan ote daiteke beste institutu batzuetan egiteko?

- Hiru asteko epean (15 egun)
- Institutuko eremuan euskara hutsean egingo dute ahobiziek. 5 ahobizi gela bakoitzeko.
- Besteek hauen lana errespetatu behar dute, eta laguntzeko jarrera izan behar dute, baina beraien ardura ez da 15 egunez euskara mantentzea.
- Erraz lortuko al dute? Zaila egingo al da? Izango al luke eraginik hizkuntza-ohituretan?

Proposamen adibidea (garatu eta osatu daiteke):

Lehenengo urratsa: aurkeztea

- Hizkuntza-ohituren inguruan hitz egiten has gaitzke. Horretarako, Euskaraldiari buruz hitz egin dezakegu:
 - o Bideo bat jarri
 - o Zer gogoratzen duten galdetu eta inguruan ikusi ote duten
 - o Hizkuntza-ohiturei buruz hitz egin: zailtasunak, joerak, ohiturak... Bereziki hizkuntza-ohiturak aldatzea zaila edo erraza izatearen inguruan hitz egin nahi dugu.
 - o Euskaraldian ezin parte hartu ahal izateari buruz galdetu: ondo iruditzen al zaie? Antolatzaileen ustez: DBHrako ez zen ekimen egokia.
 - o Saiakera bat egiteko prest? Proposamen bat aurkeztu nahi diegu.
- Proposamena ez dugu guk egingo: Armentia ikastolako ikasleek egindako proposamena izango da.
- Beste esperientzia baten berri izan dugula esango diegu, eta haiek erronka bat proposatzen dietela.
- DBHko talde guztietan Armentia-koek grabatutako bideo laburra jarriko diegu, eta ondoren prozedura aurkeztuko diegu.
- Egiteko modukoa ikusten al dute? Aztertuko al dugu gaia?

Bigarren urratsa: erronka egitea erabakitzea

- Bakoitzari fitxa bat emango diogu eta bete egin behar du. Honen modukoa izan daiteke:

PREST NAGO

- Prest nago AHOBIZI gisa ari direnen lana errespetatzeko gaztelaniaz egiteko eskatu gabe. BAI - EZ
- Prest nago AHOBIZI gisa ari direnei laguntzeko, beraiekin euskaraz egiten saiatzeko eta euskaraz egiteko gogorarazteko. BAI - EZ
- Prest nago, taldeak hala eskatuta, AHOBIZI gisa aritzeko eta 15 egunez institutuko eremuan BETI euskaraz egiteko. BAI - EZ

Oharrak:

- Erronka aurrera eraman ahal izateko lehenengo galderari gutxienez %90ak baietz erantzun behar dio eta azkenekoari gutxienez %20ak.
- Galdetegia pasa edo erantzun aurretik epeak eta eremuak adostu daitezke beraiekin: 15 egun? Institutuko eremuan?

-

Hirugarren urratsa: AHOBIZIak hautatzea

- Bigarren fitxa bat banatuko diegu. Horrelako zerbait:

AHOBIZI EGOKIAK

- Zure ustez taldekideen artean zein komeniko litzateke AHOBIZI izatea?
- Aipatu bi/hiru izen:

Oharrak:

- Fitxa bete aurretik honi buruz ere hitz egin daiteke: Ahobiziak euskaraz aritzeko ohitura gehien dutenak izatea komeni da, edo hobe da ohitura gutxiago dutenak izatea? Tarteko zerbait?
- Talde bakoitzean bost AHOBIZI aukeratzea aurreikusten da: kopuru egokia da?
- Bozkatuenei AHOBIZI izatea proposatuko diegu: ezezkoa eman dezakete.
- Ez diegu aukera emango nahi duten guztiei Ahobizi izateko. Asko badira bi bloke egin daitezke: badirenak eta ez direnak. Ahobizi gutxi eta eraginkorrak nahi ditugu. Askok izan nahi badute, aukera bat da astez aste aldatzea hiru astetan zehar.

Zalantza:

- AHOBIZIek adierazgarriren bat eraman behar ote dute? Ahobizi txapak lortu daitezke.

Laugarren urratsa: abian jartzea eta jarraipena egitea

Astelehen bateko lehen saioan egitasmoa abian jarriko dugu: adostua gogorarazi, txapak banatu (erabiltzea erabaki bada) eta abian jarri.

Asteazken eta ostiraletan 10 minutu hartuko ditugu baloratzeko, eta beharrezkoa balitz, neurri osagarriak adosteko.

Kontuan hartu:

- Irakasleok jarrera aktiboa izan beharko dugu eta hezitzaile berritsu moduan aritu. Horretan ari garenean Ahobiziei ez kargu hartu erdarara pasa badira, eta laguntza eskaini.
- Girotze lana egitea lagungarria izan daiteke: kartelak jartzea, egunero deigarria den zerbait jartzea...

Bosgarren urratsa: balorazioa egitea

Ahobizi izan ez direnen balorazioa:

AHOBIZIAK	%100ean egin du nirekin euskaraz				
	BAI	EZ	IA-IA	OSO GUTXITAN	“ez du hitz egin”
Ahobizi 1					
Ahobizi 2					
Ahobizi 3					
Ahobizi 4					
Ahobizi 5					
AHOBIZIAK	Nik beraiekin %100 egin dut euskaraz				
	BAI	EZ	IA-IA	OSO GUTXITAN	“ez dut hitz egin”
Ahobizi 1					
Ahobizi 2					
Ahobizi 3					
Ahobizi 4					
Ahobizi 5					

Ahobiziei balorazio kualitatiboagoa eskatu zaie:

- Erronkari eusteko (hizkuntza-araua %100ean betetzeko) zailtasunik handienak
- Zailtasun horiek gainditzeko proposamenak

Datuak jasotakoan, horiei buruz hitz egingo genuke ikasleekin: lorpenak, zailtasunak, sentazioak, eta abar.

Seigarren urratsa: errefortzu positiboak eta aurrera begirako proposamenak

Aukera moduan, interesgarria izan daiteke erronka egin ondoren beraientzat erreferente izan daitekeen norbait eramatea saio batera (pertsonei ezagun bat edo herriko erreferenteren bat).

Erronkari buruz hitz egin dezakete eta erreferenteak errefortzu positiboak ere eman beharko lituzke.

Aurrera begira beste saiakeraren bat egiteko prest egon ote daitezkeen aztertu dezakete.